

2024



Zumaiako plazak

Herri eta hiri guztietan daude plazak; udaletxearen aurrean egon daiteke bat, elizaren ondoan edo etxe tarteren batean beste bat. Estali gabeko tokiak izaten dira, eta herriko bizimoduaren erakusgarri onak ere bai, jarduera asko eta asko plazetan egiten direlako: azokak, dantzaldiak, elkarretaratzeak, kontzertuak, jolasak, berriketaldiak... Elkartzeko lekuak dira, oro har, orduaren arabera erabiltzaile desberdinak erakartzen dituztenak.

Egutegiko irudietarako dozena bat hautatu ditugu, eta haiei buruzko bitxikeria batzuk bildu, baina Zumaian badira plaza gehiago ere: Ondartxo plaza, San Juan plaza, Larretxoko plaza, Kofradiako plaza, Ikatz plaza, Urola plaza, Artadikoa... Gainera, kale izendegian agertzen ez diren bestelako plaza batzuk ere badaude; esate baterako, Aita Mari, Basadi edo Alai auzuneetakoak edo haur parke batzuk.

Las plazas son el centro de la vida urbana y en este calendario hemos escogido doce, cada una con su historia. Sabemos que hay más plazas en Zumaia y también otros muchos espacios en los que la gente aprovecha para juntarse, charlar, jugar y hacer todo tipo de actividades. Os invitamos a conocer algunas de sus curiosidades.



Irudiak: **Ander Hormazuri**


Aholkularitza: **Imanol Azkue**

Argitaratzailea:





SAREGILE PLAZA




URTARRILA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
1	1	2	3 ●	4	5	6	7
2	8	9	10	11 ●	12	13	14
3	15	16	17 ●	18	19	20	21
4	22	23	24	25 ○	26	27	28
5	29	30	31				



GOIKO ALBERGA
PLAZA



OTSAILA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
5				1	2 ●	3	4 Santa Ageda bezpera
6	5	6	7	8	9 ●	10	11
7	 12 Inauteriak	13	14	15	16 ●	17	18
8	19	20	21	22	23	24 ○	25
9	26	27	28	29			



MARTXOAREN 8A
PLAZA




MARTXOA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
9					1	2	3 ●
10	4	5	6	7	8 ♀	9	10 ●
11	11	12	13	14	15	16 ●	17
12	18	19	20	21	22	23	24
13	25 ○	26	27	28	29	30	31
			Aste Santua	Aste Santua			



KANTAURI PLAZA




APIRILA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
14	1 ○ Aste Santua	2	3	4	5	6	7
15	8 ● San Telmo eguna	9	10	11	12	13	14
16	15 ○	16	17	18	19	20	21
17	22	23 ○	24	25	26	27	28
18	29	30					




IGNACIO ZULOAGA
PLAZA



MAIATZA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
18			1 ●	2	3	4	5
19	6	7 ●	8	9	10	11	12
20	13	14	15 ●	16	17	18	19
21	20	21	22	23 ○	24	25	26
22	27	28	29	30 ●	31		





AMAIA PLAZA

EKAINA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
22						1	2
23	3	4	5	6 ●	7	8	9
24	10	11	12	13	14 ◐	15	16
25	17	18	19	20	21 ○	22	23
26	24	25	26	27	28 ◑	29	30

San Pedro eguna




BEHEKO PLAZA
(Eusebio Gurrutxaga plaza)

UZTAILA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
27	1	2	3	4	5 ●	6	7
28	8	9	10 San Kristobal Narondon	11	12	13 ◐	14
29	15	16	17	18	19	20	21 ○
30	22	23	24	25 Santiago eguna	26	27 ◐	28
31	29	30	31 San Inazio eguna				



OIKIAKO PLAZA

ABUZTUA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
31				1	2	3	4 ●
32	5	6	7	8	9 Euskal Jaia	10	11
33	12 ○	13	14	15	16	17	18
34	19 ○	20	21	22	23	24 San Bartolome Oikian	25
35	26 ●	27	28	29	30	31	




MAREAERROTA PLAZA



IRAILA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
35							1
36	2 ●	3	4	5	6	7	8 Arritokieta eguna
37	9	10	11 ○	12	13	14 Olarro Eguna	15
38	16	17 ○	18	19	20	21	22
39	23	24 ●	25	26	27	28	29
40	30						San Migel Artadin



MARI KALEKO
PLAZA

URRIA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
40		1	2 ●	3	4	5	6
41	7	8	9	10 ○	11	12	13
42	14	15	16	17 ○	18	19	20
43	21	22	23	24 ●	25	26	27
44	28	29	30	31			



GOIKO PLAZA
(Foruen plaza)




AZAROA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
44					1 ●	2	3
45	4	5	6	7	8 ○	9	10
46	11	12	13	14	15 ○	16	17
47	18	19	20	21	22 ●	23	24
48	25	26	27	28	29	30	



ARRANGOLETA PLAZA



ABENDUA



	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
48							1 ●
49	2	3 Euskararen Eguna	4	5	6	7	8 ●
50	9	10	11	12	13	14	15 ○
51	16	17	18	19	20	21	22 ●
52	23	24 Olentzero eta Gomezago	25	26	27	28	29
1	30 ●	31					

HERRIAREN BIHOTZA ZEN GOIKO PLAZAKO AZOKA

Azokari ere esaten zaio "plaza", eta XX. mendean asteen zehar izugarritzko mugimendua egoten zen Goiko plazaren inguruan, azokak erakarrita. Horren arrastoak badaude oraindik Arritokieta kalean: Komentuaren aldeko horman hantxe daude zintzilik astoak lotzeko erabiltzen zituzten uztai edo argoilak, 60 baino gehiago, zenbat elkartzen ziren seinale.



Arritokieta kalea 50eko hamarkadan

"40 urte bai honera natorrela. Oraingo aldiari jendia dobla etortzen zan, diferentzi ederra! Baserritarrez beteta egoten zan plaza, eta orain berriz batez. Esnia ere oso gutxi saltzen da orain plazan. Tristura da. Uste det plaza galdu egingo dala, ez det ertenbiderik ikusten. Hemen jai dago!"

Arazoa, ordea, ez zen azokarena bakarrik. Goiko plazaren inguruko denda asko ere ixten hasi ziren, gero eta jende gutxiago ibiltzen zelako. Zumaiarrok "ahaztu" egin genituen alde zaharra eta herriko bihotza, kaleko bizitza beheko aldean egiten hasi ginen. Alde zaharrak zaharren alde zizudien, gazterik ez zen ibiltzen goiko kaleetan, seguruena ezer erakargarririk topatzen ez zutelako.

2001 inguruan Udalak erabaki zuen azokaren zati handiena Eroskiri lagatzea, eta saltoki gutxi batzuk kanpoko aldera ateratzea. Urte horretan bi arrandun postu zeuden azokan, Maite Urbieta eta balentziagarrenak. Baserritarrek, berriz, bospasei: Belen (Torre), Dora (Gurmendi), Ines (Beduatxiki), Ebarista (Larretxe), Pepita (Gorostiagaundi) eta Bitoriano (Kanter). Juanita (Basusta) ere joaten zen bere loreekin. Maite Urbietaren ustez, garai bateko azokarekin alderatuta ez zeukan kolorerik.

Jendearen ohiturak aldatzen joan dira azken hamarkada hauetan, ordea: supermerkatuetan arrain eta barazki freskoak saltzen hasi ziren, etxeetan hozkailuak erabiltzea ohikoa bihurtu zen, batzuk asteburuetan azalera handiko merkataritza gunetara joan eta erosketa handiak egiten hasi ziren... Horrekin batera, plazako mugimendua gutxituz joan da urtez urte.

Torre baserriko Emili Ibarbiak XX. mendearen erdialdetik aurrera kontuak nola ziren azaldu zion Abelin Linazisorori 2006an:

"Egunero goizeko zazpi t'erditan astoa hartu eta Zumaira. Astoa kanpoan lotu eta plazan bakoitza bere tokira. Berdura, baba, tomatia... Baserriak ematen zuna saltzera. Neguan hotzak kaz-kaz eon eta etxera. Orduan plaza dana irekita zeon. Komento aldetik zabalik, aiuntamentu aldetik zabalik, aurretik zabalik... Haizia nagusi ibiltzen zan".

Mendea amaitzerako okerrera egin zuen egoerak. Hara zer zioen Pikote baserriko Karmenek **Baleike**ko 1995eko erreportaje batean:



BEHEKO PLAZAN MUSIKA ETA DANTZA XX. MENDEAREN ERDIALDEAN

Garai batean, bi plaza besterik ez ziren Zumaian: Goikoa eta Behekoa. Zumaiarren dantza, musika eta ospakizun gehienak Behekoan izaten ziren, baina Goikoan ere bai, eguraldiak laguntzen ez zuenean, hura baitzen Zumaiko leku estali handiena, Odieta estali gabe zegoenean. Beheko plazan taberna politak zeuden, batez ere Ulazienekoa eta Astonekoa, terraza ederrekin biak ere, eta jende asko ibiltzen zen, batez ere asteburuetan, igandeetan.

Negua eta hotzak bukatutakoan, Garizuma eta Aste Santu ondorengo debekuak amaituta, musika izaten zen Beheko plazan, batez ere uda partean. Plazaren erdi-erdian kiosko bat zegoen, biribila, eta han goitik jotzen zuten musika. Udaleko bandak jotzen zuen gehienbat, eta tartean, normalean hiru piezaren ondoren, bandako musikariek arnasa eta atsedean hartzeko, txistua izaten zen, normalean **Txoritxiki**

eta Modesto danborreroa, edo Isidro **Tana**, Kaldesenekoarekin. Musika hasten zen arratsaldeko bostak edo bosterdietan, eta bederatzia bitartean irauten zuen, gutxi gorabehera.

Bandan musikari gutxi zebilela eta, gero orkestinak etortzen hasi ziren, kanpotik. Gehienetan, dantza lotua izaten zen, gerritik helduta, denetarik: pasodobleak, baltsak, tangoak... Gehienak ere klasikoak. Tartean, pasakalleak ere bai. Musika euskaldunik ez.

Gero, Jazinto **Bixi** hasi zen musika jartzen plazan, disko jogailuan. Ordura arte, tabernetan ez zen egoten musikarik, eta asko abesten zen, lagunartean. Tabernetara musika ekipoak ekartzen hasi zirenean, orduan isildu zen plazako musika, orduan bukatu zen plazako dantza.

Imanol Azkue Ibarbiaren
Zumaia, izena eta izana *liburutik (moldatuta)*

*"Ni umea nitzala, amari laguntzera etortzen nitzanian Joakina **Porte**, Axuntxion **Silvestra**, Rufina **Morena** eta ama, Pepita Egaña, lau postu baziren behintzat bertako arrandunenak. Baserritarrek ere pila bat, eta mugimendua irekitzen zenetik hasi eta goiz guztian".*



Gurmendiko Dora saltzen eta Miren Urbieta erosten, 1995ean

Iturriak: **Baleike** aldizkariaren 16, 81 eta 143. zenbakiak